



ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO JARRAIBIDEAK:

INTERINITATEEN ESKAINTZA- 2012KO IRAILA:

ERIZAINA, ERIZAINZAKO LAGUNTAILEA, ADMINISTRARI LAGUNTAILEA, ZELADOREA ETA ZERBITZUETAKO LANGILEA

I. atala: Jarraibide Orokorrak

1.1 Prozedura

Aldi baterako kontratazio-eskaintza, Erizainen, Erizaintzako Laguntzaileen, Administrari Laguntzaileen, Zeladoreen eta Zerbitzuetako Langileen kategorietako bakante eta erreserbatutako lanpostuei (bakanteen zerrendak) dagokien aldi baterako kontratazio-eskaintza dokumentu honetan azaltzen den sistema elektronikoa bidez egingo da. Ez da onartuko paperean edo agindutakoa ez den beste edozein euskarritan aurkeztutako destino-aukeraketarik.

Sistema hau ez da ordezkapen-zerrendetarako erabiliko. Ordezkapen-zerrenda ospitaleek eta eskualdeek jarraituko dute kudeatzen.

1.2 Eskaintako izendapenak

Eskaintako izendapenen zerrenda eta horien ezaugarriak (kategoria, osasun-barrutia, zerbitzu-erakundea, modalitatea –erreserba, bakantea-, euskarako hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-data, lanaldia, hala badagokio, eta destino-kopurua) 2011ko Kontratazio-Zerrenden web orriko oharren atalean kontsulta daitezke (<http://lc2011.osakidetza.net>).

Zerrenda horietan jasotzen diren izendapenak gutxieneko kopuru bat dira, eta gerora hasieran eskaintakoen ezaugarri bereko beste izendapen batzuk ere esleitu ahal dira, destino bat hautatu dutenen artean.

1.3 Izangaien zerrenda

Kategoria bakoitzean eta barruti bakoitzean (Araba, Bizkaia, Gipuzkoa), kontratazio-zerrendetan libre egoteagatik eta beren hurrenkeragatik, izendapenak aukeratu ditzaketen pertsonen zerrenda alfabetikoa 2011ko Kontratazio Zerrenden web orriko oharren atalean kontsultatu daiteke (<http://lc2011.osakidetza.net>).

Destino guztiak aukeraketa-prozesu bakar batean betetzeko, eskaintako plazen kopurua baino izangai gehiago sartuko dira zerrendan.

1.4 Lanpostuen aukeraketa



Izangaien zerrendan agertzen diren pertsonen lanpostu guztiak aukeratu beharko dituzte, betiere nahi duten lehentasunaren arabera, norbere izenaren ondoan agertzen diren osasun-barrutietako baldintzak betetzen dituzten neurrian (baina kontuz! hautaketa ez da ordezkapen-zerrendetarako izena eman zuen erakundeetara mugatu behar), honako hauek izan ezik:

a) justifikatzen dutenek, halakoetan ez baitute eskaintako lanposturik aukeratu beharko (1. atala).8)

b) nahitaez aukeratu behar ez dutenek, halakoetan interesatzen zaion (zaizkion) destinoa edo destinoak aukeratu baititzakete edo batere aukeratu ez (1.9 atala).

1.5 Epea

Destinoen aukeraketa elektronikoa egiteko epea hauxe izango da: 2012ko irailaren 14tik 2012ko irailaren 24ko 14:00ak arte.

1.6 Lanpostuak esleitzea

Esleipena interesdunak interinitate-zerrendetan daukan posizioaren arabera egingo da eta betiere berak hautaketa elektronikoa adierazitako lehentasuna aintzat hartuta.

Ezin izango zaie uko egin esleitutako destinoei, eta horrek esan nahi du ez dela inolaz ere onartuko aukeratzeko azken egunaren (2012ko irailaren 24a) ondoren aurkeztutako justifikazio-dokumenturik.

Lanpostu-esleipen hori Kontratazioko web guneko oharren atalean argitaratuko da. Urrian zehar hasiko dira lanean lanpostu horietan.

1.7 Lanpostua ez onartzearen edo ez aukeratzearen ondorioak

a) Aukeratutako eta esleitutako lanpostuaz jabetzen ez bada eta eskaini eta hurrengo hamar egun baliodunetan kontratazioari uko egiteko diola dokumentuekin justifikatzen ez bada, bakanteen zerrendatik kanpo geldituko da **sei hilabeteetan**, lehen aldia bada. Bigarren ukoa bada, berriz, 2011ko Kontratazio Zerrendak indarrean dauden bitartean, zerrendatik kanpo geldituko da **urte batean**, eta azkenik, justifikatu gabeko hirugarren ukoa bada, dagokion kategoriako bakante eta interinitateen zerrendatik **behin betiko baztertuta** geldituko da.

b) Aukeratzeko betebeharra izanik osasun-barrutiko baldintzak betetzen dituzten destino guztiak aukeratzeko ez baditu, edota lanpostuak eskatzen ez baditu, interesduna baztertuta geldituko da dagokion zerrendatik sei hilabetez, lehen aldia bada, betiere interinitate-zerrendetan duen lekuagatik kontratu bat tokatuko balitzaio. Aukeratzeko betebeharra izanik bigarren aldiz aukeratzeko ez badu, 2011ko Kontratazio Zerrendak indarrean dauden bitartean, urte batez baztertuta



geldituko da, eta hirugarren ukoa bada, berriz, **erabat baztertuta** geldituko da dagokion kategoriako bakante eta interinitateen zerrendatik.

1.8 **Destinoak ez aukeratzeko justifikazioa**

Eskaintako lanpostu bat ere ez dela aukeratzeko justifikatzeko eta kategoria bateko interinitate-zerrendetatik baztertua ez izateko, indarrean dagoen Kontratazioko Erabakiaren seigarren ataleko bigarren puntuari aurreikusitako justifikazio-arrazoiaren bat alegatu behar da. Eta horretarako, justifikazio-arrazoi hori egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztu behar da. Justifikazio-arrazoi bat da beste Administrazio Publiko batean lanean aritzea. Halakoetan, kontratua edo indarrean dagoen izendapena aurkeztu beharko da.

Dokumentazio justifikagarri hori ez da zertan aurkeztu destinorik aukeratzeko ez denean eta Osakidetza bakante- edo interinitate-izendapen bat izanez gero edozein kategoriatan, sei hilabeteko edo gehiagoko izendapen ebentuala edo ordezkoa izanez gero Osakidetza, edota aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratua indarrean izanez gero Osakidetza.

Justifikatzeko epea: 2012ko irailaren 14tik irailaren 24ra. Dagokion dokumentu justifikagarria faxez (945 00 62 04) bidali behar da Osakidetza – 2011ko iraileko interinitate-eskaintza atalera, eta bertan honako hauek adierazi behar dira: izen-abizenak, NANA, kategoria eta justifikazio-arrazoiaren aipamen labur bat.

Kontratazio Erabakian aurreikusten diren justifikazio-arrazoiak bakarrik hartuko dira kontuan, betiere lehen aipaturako epean alegatu eta egiaztatu badira, eta izendapen-aukeraketarik egin ez bada.

1.9 **Ez aukeratzea edo aukeraketa partzial bat egitea ahalbidetzen duten kasuak**

Nahi duten lanpostua edo lanpostuak bakarrik aukera ditzakete, edo destinorik aukeratu ez:

- a) Osakidetza aurreko kontratazio-zerrendetako bakante/interinitate-izendapen bat indarrean daukatenean.
- b) Osakidetza sei hilabete edo gehiagoko (luzapenak barne) izendapen ebentuala edo ordezkoa indarrean daukatenean, edo beste Administrazio Publiko batean aldi baterako lanean ari direnean.
- c) Osakidetza aurreko kontratazio-zerrenden bidez emandako errelebo-kontratua indarrean daukatenean.

Osakidetza lanean ari diren eta aukeraketa partzial bat egin duten edo batere aukeratu ez dutenen hiru kasu horietako pertsonak salbuetsita daude eta ez dute zertan egiaztatu daukaten izendapenaren dokumentazioa.



Aukerarik egiten ez duen edo aukeraketa partziala egiten duen beste Administrazioetako pertsonalak dokumentuekin egiaztatu beharko du bere egoera, hau da, Administrazio Publiko batean ari dela lanean.

1.10 Kontratazio Zerrendetan berriro aktibatzea

Bakanteen zerrendetan berriro aktibatzea eskatu beharko dute (behin justifikazio-arrazoia amaituta):

- 1.8 atalaren arabera, justifikazio-arrazoiren bat duelako eskaintako lanpostu bat ere aukeratzeko ez dutenek.
- 1.9 atalaren arabera, aukeraketa partzial bat egin (ez ditu eskaintako eta bere baldintza guztiak betetzen dituen lanpostu guztiak aukeratu) eta horietako bat ere esleitu ez diotenen.

Berriro aktibatzea eskatzeko 10 egun baliouduneko epea dago, justifikazio-arrazoia bertan behera gelditzen denetik aurrera. Esaterako, berriro aktibatzea eskatu beharko du 10 egun baliouduneko epean indarrean zeukan kontratu-amaieratik aurrera edo beste edozein arrazoi justifikatu amaitzen denetik aurrera (esaterako, dagokion alta aurkeztuta).

Edonola ere, bakanteen zerrendetan berriro aktibatzea eskatu beharko dute zerrenda horien bitartez emandako izendapena amaitzen zaienak, 10 egun baliouduneko epean, izendapen hori amaitzen denetik aurrera.

1.11 Lehentasuneko aukeraketa Debagoieneko, Mendaroko, Zumarragako eta Lezako ospitaleetarako

Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiaren Hirugarren Ataleko 1. puntuaren arabera (EHAA, 106, 2011ko ekainaren 6koa), ordezkapenen zerrendetara joko da lanpostu bakanteak betetzeko **Debagoieneko, Mendaroko, Zumarragako eta Lezako ospitaleetan**. Zerbitzu Erakunde horietan, bertan sor daitezkeen bakante edo interinitateak betetzeko, lehentasuna izango dute erakunde horietako ordezkapen-zerrendetan izena eman dutenek. Erakunde horien ordezkapen-zerrendetan inor ez dagoenean, erakunde horietan sortzen diren bakante edo interinitateak dagokion Lurralde Historikoko bakanteen zerrendan izena emanda daukatenei eskainiko zaizkie.

Honek zera esan nahi du:

1. Aurrez aipatutako destinoak **-Debagoieneko, Mendaroko, Zumarragako eta Lezako ospitaleak-** lehentasunez esleituko dira dagokion osasun-barrutiko (Araba, Gipuzkoa, Bizkaia) gainerako destinoen aldean.



2. Destino horiek ondoko pertsoneri esleituko zaizkie lehentasunez: dagokion osasun-barrutiko interinitate-zerrendetan egonik, **ordezkapen-zerrendetan aipaturako ospitale horiek hautatu dituztenei.**



II Atala: Izendapenak aukeratzea

Izendapenak eskatzea

- 1.1. 2011ko kontratazio-zerrenden web orrian (<http://lc2011.osakidetza.net>), oharren atalean, “2012ko iraileko interinitate-eskaintzarako Inskripzioak” izeneko ohar bat dago, 2008ko kontratazio-zerrendetako “kontsulta pertsonalizatuak” aplikaziora eramango zaituena, 2012ko iraileko interinitate-eskaintzari dagozkion destino-aukeraketa egin ahal izateko.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo and the word "Osakidetza". Below it is a navigation bar with "Inicio" and language options "eu | es". A breadcrumb trail shows "Estás en: Inicio". On the left is a sidebar menu titled "Listas de Contratación" with links for "Información general", "Bases OPE 2008", "Categorías en Osakidetza", "Solicitud", "Listados", and "Consultas personalizadas". At the bottom of the sidebar is a W3C WAI-A WCAG 1.0 logo. The main content area features the Osakidetza logo and tagline "Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza". Below this is a section titled "Avisos" with a date "13/09/2012". The main notice is titled "INSCRIPCIONES PARA OFERTA INTERINIDADES SEPTIEMBRE 2012" and contains the following text: "La elección de destinos correspondiente a la oferta de Interinidades Septiembre 2012 ha de realizarse a través de la aplicación Listas de contratación 2011\Consultas Personalizadas. Pulse aquí para acceder a dicha aplicación."



1.2. Tekleatu zure NANA, aukeratu letra eta sakatu “bidali”

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo, and at the top right is the euskadi.net logo. Below the logos are navigation buttons for 'Inicio' and 'Ayuda'. A breadcrumb trail indicates the current location: 'Estás en: Inicio > Consultas personalizadas'. On the left side, there is a sidebar menu titled 'Listas de Contratación' with sub-items: 'Información general', 'Bases OPE 2008', 'Categorías en Osakidetza', 'Solicitud', 'Listados', and 'Consultas personalizadas'. Below the menu is a W3C WAI-A WCAG 1.0 logo. The main content area is titled 'Control de acceso' and contains the text 'Identificación mediante el DNI / NIE (para personas con nacionalidad extranjera):'. Below this text is a form with a label 'DNI / NIE:', an input field, and an 'Enviar' button. At the bottom of the page, there is a footer with 'Información legal' on the left and '© 2011. Osakidetza - Kontratazio-Zerrendak - Listas de Contratación' on the right.



1.3. Pasahitza eskatuko dizu.

Pasahitza 2011ko kontratazio-zerrendetan eskabidea egiteko erabili zenuena da. Gogoratzen ez baduzu, aukera daukazu sarbide-kontrolako orri berean 2011ko kontratazio-zerrendetako eskabidean jarri zenuen e-mailera bidal diezazuten.

eu | es

Estás en: Inicio > Consultas personalizadas

Listas de Contratación

- >> Información general
- >> Bases OPE 2008
- >> Categorías en Osakidetza
- >> Solicitud

Listados

- >> Consultas personalizadas

Osakidetza Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza

Control de acceso

Acceso mediante la contraseña:

Contraseña *:

La contraseña que debe utilizar es:

- Si se inscribió en OPE-2008: la que utilizó para inscribirse en OPE-2008.
- Si no se inscribió en OPE-2008, pero estaba admitido/a en Listas de Contratación de 2008: la que utilizó para inscribirse en las Listas de Contratación de 2008.
- Si con las claves anteriores no puede inscribirse en las listas, pero ha trabajado en Osakidetza y tiene curriculum en Osakidetza, la contraseña para acceder en las listas de contratación será la de su curriculum.
- Si no se encuentra en ninguno de los apartados anteriores, la contraseña será la que Vd. indique la primera vez que acceda a la aplicación. Deberá recordar dicha contraseña para futuras consultas y modificaciones de su solicitud.

Si no recuerda la contraseña, puede solicitar el envío de la misma pinchando [aquí](#), caso en el cual se le enviará a la cuenta de correo electrónico que especificó en el proceso correspondiente (OPE, Listas de contratación 2008 etc.). Si no pudiera lograr así la contraseña, o si la remitida no le permite realizar la solicitud, puede llamar al teléfono 945006150, en el que se le indicará la forma de solicitar y obtener la contraseña.



- 1.4. Identifikatu ondoren, menu batera ailegatuko zara. Bertan 2011ko kontratazio-zerrendetan izena eman zenueneko kategoria guztiak agertuko dira. Aukeratu 2012ko iraileko interinitate-eskaintzan hautatu behar dituzun izendapenak.

The screenshot shows a web interface for Osakidetza. At the top left, there is a navigation bar with 'Inicio' and language options 'eu | es'. Below this, a breadcrumb trail reads 'Estás en: Inicio > Consultas personalizadas'. On the left side, there is a sidebar menu titled 'Listas de Contratación' with several options: 'Información general', 'Bases OPE 2008', 'Categorías en Osakidetza', 'Solicitud', 'Listados', and 'Consultas personalizadas'. The 'Consultas personalizadas' option is highlighted. At the bottom of the sidebar, there is a logo for 'W3C WAI-A WCAG 1.0'. On the right side, the main content area is titled 'Consultas personalizadas: selección de categoría'. It contains two sections: 'Categoría / puesto funcional: AUXILIAR DE ENFERMERIA' and 'Categoría / puesto funcional: ENFERMERO/A', with a mouse cursor pointing at the second option. At the top right of the main content area, there is the Osakidetza logo and the text 'Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza'.



1.5. Sakatu lehen aipatutako kategoria, aukeraketa egiteko behar duzuna, eta sakatu “Destino-aukeraketa -Eskabidea” atalean.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo and the text 'Osakidetza'. Below it is a navigation bar with 'Inicio' and language options 'eu' and 'es'. A breadcrumb trail reads 'Estás en: Inicio > Consultas personalizadas > Menú Consultas personalizadas'. On the right, there is a sub-header 'Osakidetza' and a description: 'Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza'. The main content area is titled 'Menú de consultas personalizadas' and contains three sections: 'Solicitud:' with a 'Consulta' button; 'Consultas electrónicas:' with a 'Ver' button; and 'Elección de destinos:' with a 'Solicitud' button. A mouse cursor is pointing at the 'Solicitud' button in the 'Elección de destinos:' section. On the left side, there is a sidebar menu titled 'Listas de Contratación' with links to 'Información general', 'Bases OPE 2008', 'Categorías en Osakidetza', and 'Solicitud'. Below this menu are 'Listados' and 'Consultas personalizadas' sections. At the bottom of the sidebar, there are logos for 'W3C', 'WAI-A', and 'WCAG 1.0'.



1.6. “Eskainitako zentroak” atalean kategorian eskainitako destino guztiak azaltzen dira.

1.7. Eskainitako destino bakoitzak honako informazio hau dauka:

Plaza bakantea/plaza erresebatua (*)
Zerbitzu-erakundea eta/edo destino-zentroa
Derrigortasun-datadun hizkuntza-eskakizuna duten destinoen kopurua
Lanaldia, hala dagokionean
Destinoen kopuru osoa

(*) Plaza erresebatuetan titularraren egoera adieraziko da erresebarako:

Zerbitzu-eginkizunak edo antzekoak (ZE)
Aldi baterako sustapena edo kategoría goragoko egitekoak (ABS/KGE)
Senideak zaintzeko eszedentzia (SE)
Sindikatu-liberazioa (SL)
Zerbitzu Bereziak (ZB)

Adib.: Bakantea, Basurtuko Ospitalea, 3–2HE-05/06/01, 1-2HE-2014/06/01, 10 destino.

Destino honen informazioak adierazten dizu Basurtuko Ospitalean 10 lanpostu bakante eskaintzen direla, horietatik 3k 2HE dutela 2005/06/01 datarekin (2HE hori derrigorrezkoa da), lanpostu 1ek 2HE daukala 2014/06/01 datarekin (2HE ez da derrigorrezkoa) eta 6 lanpostuk ez dutela derrigortasun-datarik (HE ez da derrigorrezkoa).

Destino hau aukeratuz gero, Basurtuko Ospitaleko lanpostu bakanteetarako hautua egingo duzu, eta 10 lanpostuetarako aukera duzu 2011ko Kontratazio-zerrendetan 2HE egiaztatuta edukiz gero, eta 7 lanpostuetarako 2011ko Kontratazio-zerrendetan 2HE egiaztatuta ez badaukazu.

1.8. Eskainitako lanpostuak norberak nahi duen lehentasunaren arabera hautatu behar dira.

“Aukeratutako zentroak” atalean, zeuk hautatutako destinoen zerrenda agertuko da, hautaketaren lehentasunaren arabera sailkatuta (1, lehenengo hauturako; 2, bigarren hauturako, etab.).

1.9. Destino bat aukeratzeko, “Eskainitako zentroak” atalean agertzen direnen artean, sakatu nahi duzun destinoaren gainean, eta dagokion botoian sakatu “Aukeratutako zentroak” atalean hautatutako destinoen zerrendara pasatzeko.

1.10. Destinoen hautaketa amaitutakoan, “Zinpean edo hitz eman ez adierazten dut” laukitxoan sakatu eta ondoren sakatu “Onartu”.



Eskainitako zentroak aukeratzea / Centros ofertados

res-ls, hospital u. donostia-13 destinos-2-PL2-01/06/2011
res-pi / dsfc, c. bilbao - indautxu (cs) tarde-1 destino-Tarde-1-PL2-01/06/2009
res-pi / dsfc, c. bilbao - saenz de buruaga (cs) tarde-1 destino-Tarde-1-PL2-01/06/
res-pi / dsfc, c. gipuzkoa - gros (cs) tarde-1 destino-Tarde
res-pi / dsfc, hospital galdakao - usansolo-5 destinos
res-pi / dsfc, hospital u. basurto-2 destinos
res-pi / dsfc, hospital u. donostia-3 destinos-1-PL2-01/06/2005
res-pi / dsfc, osi alto deba - h. alto deba-1 destino



Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados

1.- res-cs y similar, c. araba - san martin tarde-1 destino-Tarde
2.- res-ls, hospital u. araba-5 destinos
3.- res-pi / dsfc, hospital u. araba-1 destino



La persona firmante solicita a la Dirección General de Osakidetza que le sea admitida la presente elección de destinos. Asimismo, declara bajo su responsabilidad que reúne las condiciones expresamente señaladas en la convocatoria para efectuar la presente elección de destinos, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

La cumplimentación de los datos solicitados en la presente solicitud se entiende como manifestación expresa del consentimiento para su inclusión en la Base de Datos denominada Selección y Provisión de Personal de OSAKIDETZA – SERVICIO VASCO DE SALUD y su posterior tratamiento. Tal consentimiento incluye la posibilidad de utilizar dichos datos para el desarrollo del proceso de concurso cuya participación se solicita. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición podrá ejercerlos ante el responsable del fichero: OSAKIDETZA – SERVICIO VASCO DE SALUD, con domicilio en la calle Alava, 45, 01006 VITORIA-GASTEIZ.

Baieztatzea / Confirmar





Alta behar bezala eman izanaren abisua agertuko zaizu eta egiaztagiria inprimatu ahal izango duzu.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. The main content area is titled "Destinoak aukeratzea" (Election of destinations). It displays the following information:

- Kategoria - Espezialitatea / Categoría - Especialidad**
- Kategoria - Lanpostu funtzionalaren kodea / Código categoría - puesto funcional**: B12008
- Kategoria - Lanpostu funtzionalaren izena / Nombre categoría - puesto funcional**: ENFERMERO/A
- Norberaren datuak / Datos Personales**
- NAN / DNI**: 05/01/1966
- Izena / Nombre**: [Redacted]

A confirmation message box is overlaid on the page, titled "Mensaje de página web". The message reads: "Alta realizada correctamente. Si desea imprimir un comprobante puede hacerlo ahora." (Registration completed successfully. If you wish to print a receipt, you can do so now.) There is an "Aceptar" (Accept) button at the bottom of the message box.



Destinoak aldatzea

1.1. Sakatu “Destino-aukeraketa: Aldaketa”.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo and the word 'Osakidetza'. Below it is a navigation bar with 'Inicio'. A breadcrumb trail reads 'Estás en: Inicio > Consultas personalizadas > Menú Consultas personalizadas'. On the left side, there is a sidebar menu titled 'Listas de Contratación' with options: 'Información general', 'Bases OPE 2008', 'Categorías en Osakidetza', 'Solicitud', 'Listados', and 'Consultas personalizadas'. Below the sidebar are logos for W3C, WAI-A, and WCAG 1.0. The main content area is titled 'Menú de consultas personalizadas' and contains three sections: 'Solicitud:' with a 'Consulta' button; 'Consultas electrónicas:' with a 'Ver' button; and 'Elección de destinos:' with three buttons: 'Modificación', 'Consulta', and 'Anulación completa de destinos'. A mouse cursor is pointing at the 'Modificación' button. In the top right corner, there is another Osakidetza logo and the text 'Información General y personalizada sobre las listas de contratación de Osakidetza'.

1.2. Pantailan une horretara arte egin duzun destinoen hautaketa agertuko da.

1.3. Hala nahi izanez gero, “Aukeratutako zentroak” ataleko zerrendan destinoak gehitu edo kendu ahal dituzu, edo berriro ere sailkatu zuk nahi duzun lehentasunaren arabera.

1.4. Amaitzen duzunean, “Zinpean edo hitz emanez adierazten dut” laukitxoan sakatu eta ondoren sakatu “Onartu”.

1.5. Alta behar bezala eman izanaren abisua agertuko zaizu eta egiaztagiria inprimatu ahal izango duzu.



Destinoak kontsultatu

- 1.1. Sakatu “Destino-aukeraketa: Kontsulta”
- 1.2. Pantailan une horretara arte egin duzun destinoen hautaketa agertuko da.
- 1.3. Hala nahi izanez gero, egiaztagiria inprimatu ahal izango duzu

Eskainitako zentroak aukeratzea / Selección de centros ofertados

Aukeratutako zentroak / Centros seleccionados
1.- res-cs y similar, c. araba - san martin tarde-1 destino-Tarde
2.- res-ls, hospital u. araba-5 destinos
3.- res-pi / dsfc, hospital u. araba-1 destino

La persona firmante solicita a la Dirección General de Osakidetza que le sea admitida la presente elección de destinos. Asimismo, declara bajo su responsabilidad que reúne las condiciones expresamente señaladas en la convocatoria para efectuar la presente elección de destinos, comprometiéndose a probar documentalmente todos los datos que figuran en la solicitud cuando le sean requeridos.

DECLARO BAJO JURAMENTO O PROMETO

La cumplimentación de los datos solicitados en la presente solicitud se entiende como manifestación expresa del consentimiento para su inclusión en la Base de Datos denominada Selección y Provisión de Personal de OSAKIDETZA – SERVICIO VASCO DE SALUD y su posterior tratamiento. Tal consentimiento incluye la posibilidad de utilizar dichos datos para el desarrollo del proceso de concurso cuya participación se solicita. Los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición podrá ejercerlos ante el responsable del fichero: OSAKIDETZA – SERVICIO VASCO DE SALUD, con domicilio en la calle Alava, 45, 01006 VITORIA-GASTEIZ.

Erregistratze-data / Fecha de registro: 13/09/2012



Destino guztiak ezabatzea

1.1. Sakatu “Destino guztiak ezabatzea” atalean.

1.2. Bi aldiz eskatuko dizu baieztatzeko ezabaketa eta, ondoren, zure destinoak ezabatu direla adierazten duen oharra agertuko da.

GARRANTZITSUA: destino-aukeraketa ezabatzen baduzu, ziurtatu berriro ere aukeraketa egiten duzula. Bestela, epea igarotzen bada dagokion destino-aukeraketa egin gabe, destino-aukeraketarik ez duzula egin nahi ulertuko da, eta Jarraibide Orokorretako 1.7. eta 1.9. ataletan aurreikusten diren ondorioak ezarriko dira.

The screenshot shows the Osakidetza website interface. At the top left is the Osakidetza logo and the word 'Osakidetza'. Below it is a navigation bar with 'Inicio' and language options 'eu' and 'es'. A breadcrumb trail reads: 'Estás en: Inicio > Consultas personalizadas > Menú Consultas personalizadas > Elección de Destinos: anulación'. The main content area is titled 'Elección de destinos: anulación' and contains the text 'Está a punto de anular la elección de destinos, ¿desea continuar?'. There are two buttons: 'Onartu / Aceptar' and 'volver'. A 'Mensaje de página web' dialog box is open, displaying a question mark icon and the text 'Si se anularán los destinos, ¿desea continuar?'. It has two buttons: 'Aceptar' and 'Cancelar'. In the sidebar, there is a 'Listas de Contratación' section with links to 'Información general', 'Bases OPE 2008', 'Categorías en Osakidetza', 'Solicitud', 'Listados', and 'Consultas personalizadas'. At the bottom of the sidebar is a W3C WAI-A WCAG 1.0 logo.